

## **Loiolako liburutegia asteburuetan ere zabalduko dute azterketa garaian**

**Julian Eizmendi Azpeitiko alkateak erretoretzarekin akordioa lortu du. Egitasmo berria bihar jarriko dute abian eta astegunetan izaten duen ordutegi berdina izango du.**

Kristina Fernández

Azpeitia. Loiolako Santutegiaren eskuineko eraikinean kokatutako liburutegia zabalik egongo da aurrerantzean ikasleek asteburuetan erabil dezaten.

Azpeitiko Udalak aurreratu zuenez, herritarren aldetik jasotako eskaera anitzen ondorioz, Julian Eizmendi alkate berria Loiolako erretoretzarekin bildu eta akordio bat lortu zuten: "Unibertsitateko ikasle askok aspalditik eskatzen zuen zerbitzu hori, azterketa garaian asteburuetan ikasteko tokirik ez dutelako", azaldu zuten udal ordezkariak.

Horrela, azterketa garaia iristearekin batera, herriko ikasleek Loiolako liburutegian ikasteko aukera izango dute larunbat eta igandeetan. Egitasmo berria bihar jarriko dute abian eta liburutegiak astegunetan izaten duen ordutegi berdina izango du, hau da, 9.00etatik 13.00etara eta 15.30etik 19.00etara bitartean.

Arduradunek adierazi zutenez, ekimena azterketa garaietara mugatuko da bakarrik. Honela, otsailean zehar dauden asteburu guztietan irekita egongo den arren, "behin garai hori pasata, berriro ohiko ordutegira itzuliko da liburutegia, baina udako azterketak hasten direnean berriro zabalduko ditu ateak asteburuetan", agertu zuten.

Sexologia zerbitzua Bestalde, gaurtik aurrera zerbitzu berri bat eskaintzen hasiko da Azpeitiko Udala. Gazteria sailaren eskutik gazteei zuzendutako sexologia zerbitzua jarriko da martxan eta ekaina bitartean, hileko azken ostiralero gozatu ahal izango da ekimen berriaz.

Gazteen Informazio Bulegoan kokatu eta eskainiko dute zerbitzua 16.00etatik 20.00etara bitartean eta, arduradunek azaldu zutenez, sexualitatean aditu den teknikari bat egongo da bertan, hurbiltzen diren gazteen galdera eta kezka argitu eta aholkuak emateko.

GIB egoitzako bertatik bertarako zerbitzuaz gain, on-line bidezkoa ere eskainiko dela gaineratu zuten udal ordezkariak. Hala, egun eta ordutegi berdinean, ostiraletan 16.00etatik 20.00etara, udaletxearen [www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net) webgunearen bidez galderak bidaltzeko aukera egongo da. Horretarako, web orrian Azpeitiko sexologia zerbitzua jartzen duen ikonoan klikatu beharko da eta- jarraian, bertan agertzen den orrialdean idatzi galdera.

Udalak egitasmorako ezarritako adituak galdera edota kezka guztiak jaso ahala erantzun egingo ditu. Interesatuaren argibiderako, bidalitako galderak ez direla publiko egingo ziurtatu zuen Udalak, "eta erantzunak egin dituenari soilik bidaliko zaizkio, zerbitzuaren pribatutasun eta intimitatea bermatzeko", esan zuten.